



## HAUR ETA NERABEEN ARLOAN AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BEHARRARI BURUZKO TXOSTENA

### AURREKARIAK:

1985 urtean Gipuzkoako Lurralde Historikoari adingabeen babes, tutoretza eta birgizarteartzeari buruzko funtzio eta zerbitzuen eskumena eman zitzaionetik, eta azaroaren 11ko 21/1987 Legeari jarraituz, Adopzioa, Familia Harrera eta Babesa emateko beste era desberdinei buruz diharduten Kode Zibileko hainbat artikuluen aldaketari buruzkoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak giza babesgabetasuna jasaten duten haur eta nerabeen, eta euren familien, arreta eta zaintza dakarten giza ardura beregan hartu zuen.

Gaur egungo eremu arauemaileak arreta modelo bat ezartzen du zeinetan, gure inguruko beste herrialdeetan egiten den eraren alderantziz, administrazioaren egintzak izan diren babesgabetasunean dauden haur eta nerabeen zaintzak bermatzeko. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundia da gure lurraldean gai honetan eskuduna den erakunde administratiboa. Hala ere, prozesu hauen barnean dauden pertsona guztien eskubideak bermatzeko, eta jarduketa berme bat ezartzeko, Fiskaltzari dagokio administrazio akzioen ikuskapena, eta Epaitegiak dira hartutako neurri administratiboen aurka jotzeko erakundeak.

Epai-babes egoera honek, eragiten dio Zerbitzuari zorrotza izatea bere prozedimentuekin eta kriterioekin, egon litezkeen forma defektu eta ikuspegi desegokiengatik bere ekintzen berrikustea ekiditeko.

Azken urte hauetan, asko igo da prozedura judizialen kopurua. Biztanleriak dituen eskubideak ezagutzen ditu, eta geroz eta gehiago jotzen du epaitegietara hartutako neurrien aurka. Honek Erregimen Juridikoko Zuzendaritza Orokorrek garatzen dituen jarduketa ugari sortzen ditu, baina Zerbitzuak kasu bakoitzaren kasuistika dagokion araubide juridiko zabala, konplexu eta oso espezifikora egokitu behar du, eta maiz, Zuzenbidetzako beste alor ugariaren ezagutza eskatzen dute, adibidez, atzerritartasunarekin zerikusia duen guztia. Kontratu honek, hori dela eta, foru letraduekin koordinazioaren beharra egokia ikusten du, hauek epaitegiekin dituzten jarduketan baitan, edota beste instantzia batzuekin, babesgabetasuna egoeran dauden adingabe eta nerabeen, eta hauen ardura hartzen duten Zerbitzuko langile-teknikarien eskubide eta interesen defentsan.

Beste alde batetik, Zerbitzuak epaitegietan zuzenean prozedura ugari aurkezteko betebeharra du, adingabe eta nerabeen identitatea zein den argitzeko ekintzak ebatzi ahal izateko (Nazionalizazio arautzeak, seme-alaba eta gurasoen arteko erreklamazioak...), edota familia-harrerak edo adopzioen osaketak gertatzen direlako.

Orohar, beharrezkoa da adingabe eta familien arloan ezagutza sakonak izatea, eta hau bermatzea oso zaila da Zerbitzuak duen egituraketarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak baliabiderik ez duenez, beharrezkoa da Lizitazio baten deialdia egitea, nahitaezkoa den asistentzia hau eman dezaketen erakunde eta pertsonak euren eskaintzak aurkeztu ditzaten.



## PROPOSAMENA:

Hau guztia kontuan izanda, abian jarri nahi da HAUR ETA NERABEEN ARLOAN AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA kontratatzeko espedientea, urtebeteko gehieneko lizitazioaren prezioa 59.982,12 euro (%21eko BEZ barne) duena, eta honako xehetasun hauekin:

### 1- Sorta-kopurua:

Sortetan banatzea ez da egokia ikusten, zerbitzu hau emateko lan-jardunaldi bakarra aurreikusten baita; halaber, espediente guztien kudeaketa eta koordinaketa hark eraman beharko lukeelako, eta lanaren programazioa eta eraginkortasuna bermatzeko era hau ikusten da zuzena eta bakarra.

### 2- Kaudimena:

**Kaudimen tekniko eta profesionala:** lizitatuzaileek egiaztatu beharko dute azken hiru urteetan kontratu honen xedearen antzekoa zuen lan bat behintzat egin dutela. Horretarako bideak honakoak izango dira: organo eskudunak eman edo bisatutako ziurtagiria hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo subjektu pribatuak emandako ziurtagiria hartzailea subjektu pribatua denean, edo enpresariaren beraren adierazpena bestelako ziurtagiririk izan ezean. Eta enpresek egiaztatzen duten beste kontratu horren zenbatekoa **30.000,00 €koa** izan behar da gutxienez.

**Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:** urteko negozio bolumena, azken hiru urteetan zehar. Nahikoa izango da bolumenik handieneko urteko negozio bolumena gutxienez **30.000,00 €koa** bada. Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresariak legezko kontabilitate liburuak aurkez ditzakete, ordezko egiaztapen gisa

### 3- Esleipen irizpideak:

#### 1- Balio-judizioaren bidez balioesteko irizpideak ..... 48 puntu

#### 1.a – Lan programa ..... 48 puntu arte

Lanak gauzatzeko sistemaren memoria tekniko eta deskribatzailea aurkeztuko da. Ezaugarri Teknikoen Agirian adierazten diren atal guztiak jaso eta garatu behar ditu.

Memoria honek gehienez 30 orrialde izango ditu eta aurreikusitako helburuak betetzearen arabera baloratuko da, atal hauek izango direlarik bereziki baloratuko direnak: egin beharreko zerbitzua ondo ezagutzea eta kontratuaren helburu diren zereginen garapenarekin eta antolaketarekin zerikusia duten alderdi aipagarrien deskribapena.

Erabiliko den metodologiaren aipamena egin beharko da, eta ekintzen planifikazioa, hauek garatzeko erabiliko diren baliabideak zeintzuk diren garatuz.



- a- Aholkularitza: babesgabezia dauden adingabe eta nerabeen arreta, informazioa, aholkularitza eta gai desberdinen kudeaketa. Txostenak eta aurrez aurreko arretaren antolaketa..... 12 puntu arte
- b- Haur eta nerabeen babeserako Zerbitzuari eskainitako formazioa ..... 8 puntu arte
- c- Aipatu zerbitzuko langileei eta adingabe-nerabeei jarraipen-laguntza.. 2 puntu arte
- d- Gai hauen lanketa:..... 14 puntu arte
  - d.1- Ekintza prozedimentuak eta inprimakiak ..... 4 puntu arte
  - d.2- Adingabeen adopzioa burutzeko eskaeren aholkularitza ..... 3 puntu arte
  - d.3- Erregistro zibilean inskripzioak ..... 2 puntu arte
  - d.4- Epaitegietan dauden espedienteen kudeaketa ..... 3 puntu arte
  - d.5- Zaintzapean dauden adingabeen eskubideak eta interesak babesteko salaketak ..... 2 puntu arte
- e- Nazioarteko adopzioen espedienteetan esku-hartzea ..... 4 puntu arte
- f- Aholkularitza Erregimen Juridikoko Zuzendaritza Nagusiko Letratuei ..... 4 puntu arte
- g- Judizioz kanpoko txostenen lanketa ..... 4 puntu arte

**2- Formula bidez balioesteko irizpideak ..... 52 puntu**

**2.a- Prezioa ..... 15 puntu arte**

**2.b- Epaitegi barruko eskarmentua ..... 15 puntu arte**

Azken hiru urteetan Epaitegietara bideraturiko izapide edo auziak kontuan hartuko dira, hauetako bakoitzari 0,30 puntu emango zaiolarik.

**2.c- Adingabeen Babesgabetasuna edo/eta Adopzioaren inguruko formazioa .. 15 puntu arte**

Balioetsiko dira Adingabeen Babesgabetasuna edo/eta Adopzioaren inguruko titulazio akademiko ofizialen jabe izatea, edo unibertsitate edo/eta eskola unibertsitarioek eskaintzen dituzten titulazio propioen bat izatea, 15 puntura arte, honako baremo hau kontuan izanda:

- 200 eta 250 ordu artekoak ..... 5 puntu titulu bakoitzeko.
- 251 eta 300 ordu artekoak ..... 10 puntu titulu bakoitzeko.
- 301 ordu edo gehiago ..... 15 puntu titulu bakoitzeko.

**2.d- Elebiduntasuna ..... 7 puntu arte**

Zerbitzuari emango zaion formazioaren eskuliburua edo apunteak elebidunak izango direnaren konpromisoa.

**4- Azpikontratazioa:**

Ez da onartzen.

**5- Iraupena:**

Honako kontratazio espedienteetan proposatzen dugu kontratuak hiru (3) urteko hasierako indarraldia izatea, sinatzen denetik aurrera, eta beste bi (2) urtez luzatzeko aukera izatea, guztira gehienez ere bost (5) urteko iraupena izango duelarik (hasierako iraupena barne).



**6- Bestelako xehetasun batzuk:**

**Subrogazioa:** Ez da aurreikusten.

**Fakturatzea:** Hilero ordainduko da faktura aurkeztearekin bat, hileko prezioa finkoa izango delarik.

**Bermea:** Kontratuan eta pleguetan agertzen diren baldintzak beteko dituela bermatzeko, lizitatzailerak esleipenaren urtekoaren zenbatekoaren %5eko bermea aurkeztuko du kontratua sinatzeko garaian.

Donostian 2019ko martxoaren 26an

**Patxi Agiriano Barrenetxea**  
Haurren eta Nerabeen Babeseko zerbitzuburua